

Jardun biko irakaskuntzarako gakoak: oinarrizko erremintak eta estrategiak



Uzt. 12 - Uzt. 13 2023

Kod. H13-23

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2023

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 12 - Uzt. 13 2023

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Gaztelera Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Azalpena

Egungo bizi-erritmoek lanarekin eta familiarekin bateragarriak diren ikas-irakas ereduak eskatzen dituztela ematen du. Halaber, ezinbestekoa da ikas-irakas prozesuak pertsona bakoitzaren ikaskuntza-erritmoei egokitu beharra. Eszenatoki honetan badago, gainera, beste eragile bat: pandemiak sortarazitako ikas- eta irakas- esperientziak. Horregatik, litekeena da irtenbidea eszenatoki hibrido edo jardun bikoetan egotea, horietan konbinatuz modu sinkronoak eta asinkronoak.

Ikastaro honetan, jardun biko irakaskuntzaren marko teoriko-praktikotik abiatuta, esparru honetako esperientziak aurkeztuko ditugu. Horretaz gain eredu honetan jardun duten edo jardungo duten irakasleei baliagarriak gerta dakizkien zenbait estrategia eta erreminta ere aurkeztuko dizkiegu.

Teoriko-praktikoa izango da planteamendu metodologikoa. Hala, aurkeztutako estrategia eta erreminta batzuk baliatzeko aukera izango da, baita helduen hizkuntzen ikas-irakaskuntzaren esparruko proposamenak era kritikoan aztertzeke ere.

Azkenik, helduen euskalduntzean jardun biko ereduaren interesa duten pertsonen arteko komunikazioa eta lankidetzarako proposamen bat egingo da.

Helburuak

Jardun biko ereduaren ezaugarriak ulertzeko gakoak eskaintzea.

Hizkuntzen ikas-irakaskuntzaren eremuan jardun biko esperientziak aurkeztea.

Jardun biko ereduko zenbait proposamen era kritikoan aztertzea.

Euskararen eremuan jardun biko irakaskuntzan interesaturik daudenak lankidetzan aritzeko oinarri batzuk jartzea.

Lankidetzak



Programa

2023-07-12

09:00 - 09:15	Inaugurazio instituzionala. Parte hartzeko ordena: Iñaki Murua HABE - Teknikaria Bingen Zupiria Gorostidi Eusko Jaurlaritza - Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua
09:15 - 10:30	“Las bases de blended learning” Diana Pastoriza Espasandín CAFI (Centro Autonómico de Formación e Innovación. Xunta de Galicia) - "Formación, innovación e internacionalización" arloko burua
10:30 - 11:15	“La evaluación, uno de los motores del b-learning” MARIA Fernández González EOI Pontevedra - Irakaslea eta zuzendariordea
11:15 - 11:45	Atsedena
11:45 - 13:00	“Portfolios de alumnado y de profesorado” Diana Pastoriza Espasandín CAFI (Centro Autonómico de Formación e Innovación. Xunta de Galicia) - "Formación, innovación e internacionalización" arloko burua
13:00 - 14:15	“Feedback mediante vídeo” MARIA Fernández González EOI Pontevedra - Irakaslea eta zuzendariordea
14:15 - 14:30	Sintesia

2023-07-13

09:00 - 10:00	“¿Qué hemos aprendido en el proyecto SBLENDID y en EOIs?” Experiencias sobre modelo semipresencial en enseñanza-aprendizaje de idiomas Diana Pastoriza Espasandín CAFI (Centro Autonómico de Formación e Innovación. Xunta de Galicia) - "Formación, innovación e internacionalización" arloko burua MARIA Fernández González EOI Pontevedra - Irakaslea eta zuzendariordea Ana Rodríguez Arangoa Iruñeko HEO - Irakasle ohia
10:00 - 10:30	“Jardun biko eredua: HABEtiko ikuspegia” Iñaki Murua Anzola HABE - Didaktika-teknikaria
10:30 - 11:15	Mahai ingurua: “Jardun biko: euskaltegien esperientzia” Iñaki Murua Anzola HABE - Teknikaria (Moderatzailea) Ana Colomo Cantero AEK Agurtzane Goñi Zugarramurdi Ilazki euskaltegia - Zuzendaria Fidel Jesus Vegas Fernandez Barakaldoko Udal Euskaltegia
11:15 - 11:45	Atsedena

11:45 - 12:15	“Parrilla de análisis de cursos semi y otras herramientas” MARIA Fernández González EOI Pontevedra - Irakaslea eta zuzendariordea
12:15 - 14:15	“Taller práctico de herramientas y recursos asociados al b-learning” Diana Pastoriza Espasandín CAFI (Centro Autonómico de Formación e Innovación. Xunta de Galicia) - "Formación, innovación e internacionalización" arloko burua MARIA Fernández González EOI Pontevedra - Irakaslea eta zuzendariordea
14:15 - 14:30	Sintesia

Zuzendaritza



Iñaki Murua Anzola

HABE, Teknikaria

Hezkuntza-Zientzietan lizentziatua eta doktorea (UNED). Helduen prestakuntzaren alorrean aritu da ibilbide profesional osoan, euskararen ikas-irakaskuntzan batez ere. Basauriko Udal Euskaltegia ia 10 urtez irakasle (eta hasierako urteetan zuzendari) izan ondoren, 1995ean hasi zen HABEn teknikari gisa, harrez geroztik zeregin desberdinetan jardun duelarik. Azkenaldi honetan, Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza alorrean; besteak beste, erakunde horrek plazaratzen dituen argitalpen teknikoen koordinatzaile-editore (eHIZPIDE, Itzulpen Saila) eta Irakasbil webguneko editoreetako bat. Teknologien eta irakasleen prestakuntzaren inguruan ardaztu dira bere ikerketa eta argitalpenak; ikas-ziberkomunitateak eta partaidetza pasiboa dira gai nagusiak eremu horietan.

Irakasleak



Ana Colomo Cantero

Euskalduntze eta Alfabetatzerako Diplomaduna . 34 urtez ari da AEKn. Didaktika Zerbitzuko diseinugilea da.. Irakaskuntzan mota guztietako taldeak artatu ditut. Duela sei urte jardun biko taldeekin hasi zen. Aurten, bi artatzen ditu: C1 eta C2 mailakoak, hain zuzen.



MARIA Fernández González

Filologia Ingelesean lizentziaduna eta Ipar Amerikako Literaturaren eremuan ikertzeko nahikotasuna (Universidad de Santiago de Compostela). Honako ikastaro hauek ere egin egin ditu: "Curso Superior Universitario de Profesor de Español para Extranjeros ELE Inesem Business School" eta "Technologies and approaches to Blended, Hybrid and Online Teaching" (NILE Institute). Espainiera-irakasle Liverpooletako Unibertsitatean. Egun, ingeles-irakasle eta zuzendariorde Pontevedrako Hizkuntza Eskola Ofizialean. SBLENDID Erasmus+ KA104 Europako proiektuan partaide. Irakasle eta kontalari Galiziako irakasleen prestakuntzarako zenbait programatan (CAFI eta Consellería de Cultura, Educación y Universidad de la Xunta de Galicia). Irakasleentzako online ikastaroen sortzaile eta tutore (PLATEGA-CAFI plataforman ("Enseñanza Semipresencial" y "Conectar dos mundos a través del aula virtual") eta MURCIAEDUCA plataforman ("Conectar dos mundos a través del aula virtual" y "Acompañar el alumnado en su aprendizaje"). Zenbait kongresutan hizlari, hala nola "II Congreso Estatal de Personas Adultas" eta "Congreso Internacional de Innovación y Tendencias Educativas".



Agurtzane Goñi Zugarramurdi

ILAZKI EUSKALTEGIA


Euskal Filologian lizentziaduna (1992). 1994tik Ilazki euskaltegian irakasle (2008tik 2016ra C2 mailan); 2006tik 2010era ikasketaburu eta 2021etik zuzendari. 2011tik 2015era C1 mailan aztertzaile, HEOCek zedarritutako euskarazko komunikagaitasun-mailen egiaztatze-prozesuetan. 2015etik, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum - C2 maila /Irakasleen gaikuntzan tutore.



Diana Pastoriza Espasandín

Centro Autonómico de Formación e Innovación

Ingeles Filologian lizentziaduna (Santiago Unibertsitatea), Hizkuntzalaritza Masterra (University of Kansas), amaierako tesiaren izenburua: "Second language lexical processing: influence of teaching method and word characteristics". Gaztelaniako hizkuntza-laguntzailea unibertsitate berean. 2007tik Hizkuntza Eskola Ofizialeko ingeles irakasle eta 2008tik 2017ra Santiagoko HEOkoribeiira Hedapeneko ikasketaburu. 2017tik 2019ra, CAFiko Hezkuntza Digitaleko Departamentuko aholkulari, eta 2019tik CAFiko Prestakuntza, Berrikuntza eta Nazioartekotze Saileko burua. Erasmus+ SBLINDID proiektuaren koordinatzaile-kide; Galiziako 10 HEOran eta CAFiren arteko partzuergoa da, eta jardun biko irakaskuntza-ereduko ikastaroen sorrera eta tutoretza estandarizatzea du helburu.



Ana Rodríguez Arangoa

Escuela Oficial de Idiomas de Pamplona

Kazetaritzan lizentziatua da. Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan masterra du eta Cambridge Celta diploma (Certificate in Teaching English to Speakers of Other Languages). Ingeles-irakaslea Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean 2018tik 2022ra; ikas-eredu desberdinetan aritu da (aurrez aurrekoa, online, jardun biko). Jardun bikoari buruzko SBLINDID proiektuaren baitan antolatutako prestakuntzan tutore izan da, Erasmus+ ekimen batean parte hartu ondoren.



Fidel Jesus Vegas Fernandez

Informazio Zientzietan Lizentziaduna, Kazetaritza adarrean (1988). Unibertsitateko Espezialista - Hizkuntza plangintza Graduondokoa ere badu (EHUko Berezko Titulua, 2009). 1990etik euskara-irakasle Barakaldoko Udal Euskaltegian eta bertan hainbat urtetan autoikaskuntza gelan irakasle eta tutore aritu da. 2014. urtean jardun biko ereduko lehenengo ikastaro pilotua diseinatu eta abian jarri zuen. Halaber, Labayru Fundazio Euskaltegian ere ibilia irakasle gisa urte askoan. Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Curriculumean zedarritutako euskarazko komunikagaitasun-mailen egiaztatze-prozesuetan

B2 mailan aztertzaile, tutore eta epaimahaikide.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2023-05-31 ARTE	2023-07-11 ARTE	2023-07-12 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	-	59,00 EUR
GONBIDAPENA	-	0 EUR	-
Orokorra	-	-	84,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	-	71,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	-	59,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurkitza	-	-	71,00 EUR
Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua	-	-	71,00 EUR
Elkar	-	-	71,00 EUR
Euskarlegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatutako kide	-	-	71,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa